

7. ZENBAKIA MARTXOA

Heldu da momentua, negua joan da eta udaberriari ongi etorria eman behar diogu. Horretarako jai erraldoi bat ospatuko dugu konpartsa-kideekin. Beste aldetik, Topaketak bueltan dauzkagu eta urduritasuna nabaritzen hasi da artisten artean. Zatoz gure lagunak animatzera!!

UDABERRI JAIA

ESKOLETAKO
KRONIKA

TOPAKETAK

HITZ ETA PITZ

IRRATSAIOA

ZIRKUITATZEN
ARI DIREN
ANTZEZLANAK

SAIO BERRIAK

KURKULUXETAN ALDIZKARIA

UDABERRI JAIA

PIRATEN EGUNA

APIRILAK 19
arratsaldeko 17:00etan

Tailerrak:
makilajea eta globoflexia

Zirtaka Antzerki Taldea:
"Maddi Pirata"
Txokolatada

*photocall bat egongo da

Etorri pirataz mozorroturik!!

Antolatzaileak:
Zazparrada konpartsa
Kurkulu Xetan kultur elkarteak

kafe antzokia
www.kafeantzokia.com

Kurkulu Xetan

BADATOR DISKOFESTA!

Martxan dago aurtengo udaberrirako diskofesta. Baina zer da "diskofesta"? Zer esan nahi du hitz horrek? Hitz horrek esan nahi duena, poztasuna da. Musika, dantza eta jolasak nahasten baditugu DISKOFESTA lortuko dugu. Tartetxo bat dantza egiteko, barre egiteko, disfrutatzeke eta ondo pasatzeko.

Adi egon eguraldi onarekin batera DISKOFESTA etorriko da eta.

TOPAKETARAKO PRESTATZEN

Ikastaroa ikasturtearen erdi aldera iritsi da eta topaketak aurrez aurre dauzkagu, horregatik giroa bero dago eta nerbioak pil-pilean daude. Entseguak gero eta biziagoak dira eta protagonistekin hitz egitera hurbildu gara:

Zer ikasten duzue antzerki klasean?

Antzerkia, lotsa galtzea, kokapena, mugimendu eszenikoak, antzerki metodoa, memoria lantzea, ... gainera euskara erabiltzen dugu!

Zelan pasatzen duzue?

Super ondo, klasea super arin pasatzen da.

Zelan doaz entseguak?

Ondo, oraintxe bertan hasi gara. Antzezlanaren kokapena lantzen eta papera ikasten ari gara.

Urduri zaudete Topaketetan parte hartzeagatik?

Beti dago urduritasuna baina gero ondo ateratzen da. Eskerrak gortinen atzekoa ez dela ikusten! 3 minutu eszenara sartu baino lehen jolasten egoten gara teloiaren atzean.

Zer da gehien kezkatzen zaituztena?

Papera ahaztea, ahotsa galtzea, gaixorik ipintzea, txarto egitea...hamaika mila gauza daude!

KUKUKE, DERIOKO ANTZERKI ESKOLA



XV. HAUR ANTZERKI TOPAKETAK

kafe antzokia - 2015

Maiatzak 4 - 18:00

'kondaren lapurketa'
ARTXANDAPE IKASTOLA
'Far west'
ARTXANDAPE IKASTOLA

Maiatzak 6 - 18:00

'Edurrezuri... ze zuri!'
KUKULLAGA IKASTETXEA
'koadro beltzaren lapurreta'
ZURRABAN IKASTETXEA

Maiatzak 11 - 18:00

'harpisi irla'
LA SALLE IKASTETXEA
'hizaki bat nazkagarria'
KUKULLAGA IKASTETXEA

Maiatzak 12 - 18:00

'saguen asanblada' eta 'kokotranaino'
DERIOKO KUKUKE ANTZER
maria antonieta eta filipondio'
KUKULLAGA IKASTETXEA

Maiatzak 18 - 18:00

'piratak' eta 'zirkus musikala'
KURKULUXETAN ANTZERKI ESKOLA
'belakina'
KUKULLAGA IKASTETXEA

Maiatzak 19 - 18:00

maria antonieta eta ezkontza'
LEMOAKO IKASTETXEA
'zirkuz zirkua'
INTXIRU IKASTOLA

Maiatzak 23 - 18:00

'hotel beldurgarria'
URRETXINDORRA IKASTOLA
'zigorruak'
LA SALLE IKASTETXEA

Maiatzak 26 - 18:00

'sketxen lehaketa'
INTXIRU IKASTOLA
'hizaki bat nazkagarria'
LA SALLE IKASTETXEA

Maiatzak 27 - 18:00

oz ko mara
KURKULUXETAN ANTZERKI ESKOLA
'vanhelisg familiarren etxea'
URRETXINDORRA IKASTOLA

SARRERA 3€



XIV. HAUR MUSIKA TOPAKETAK

kafe Antzokian

2015

arratsabeko 18:00etan

APIRILAK 27

ARRATIAKO MUSIKA ESKOLA
GERNIKAKO SEGUNDO OLAETA MUSIKA ESKOLA

APIRILAK 28

ARRRIGORRIAGAKO ARTIZARRA MUSIKA ESKOLA
ARRANKUDIAGAKO MUSIKA ESKOLA
GERNIKAKO SEGUNDO OLAETA MUSIKA ESKOLA

APIRILAK 29

ONDARROAKO UNANUE MUSIKA ESKOLA
SAMBA ESKOLA

sarrera 3€



HITZ ETA PITZ: BESTELAKO MUNDUA POSIBLEA DA...ANTZERKIAN



JOSERRA GUTIERREZ
Irakasle eta musika egilea

Bestelako mundua posiblea da antzerkigintzan. Hauxe berehala ikasten dute umeek antzerki ikusten dutenean. Euren begiak mundu desberdinetara irekitzen dira, errealitatearekin zer ikusirik ez dutenetara eta batzuetan berdin berdinak direnetara. Helduok gure bizitzari buruzko istorioak konta diezazkiegu baita euren bizitzei buruzkoak ere. Orduan umeen buruan galderak sortzen dira.

Baina, zer gertatzen da umea bera antzezlaria denean? Ikusle ez ezik, errealitatearen interpretatzaile ere bihurtzen da eta bizitzaren begirada anitzak daudela jabetzen da. Bere pertsonaia ikusteko era adierazten du. Beste bizitza bati bizitza ematen dio. Bestearen paperan jartzen da.

Eta, zer gertatuko litzateke umea, gainera, antzezlanean egilea baltitz? Erakusten diguten errealitatea zabalagoa dela eta bere mundua eraiki dezakeela konturatuko litzateke. Berarentzat mundu berri bat, baita gainerakoentzat ere. Mugak eta oztopoak desagertzen dira. Ezinezkoa dena errealitate bihurtzen da, eta bestelako mundua posiblea delako ideia sortu ez ezik, bestelako mundu bat beharrezkoa dela barneratu ere egiten du umeak.

ANE MONNA OSKOLA ETA KARRAMARROI IRRATIAN

Larunbat eta igande guztietan irrastian biltzen gara gure laguntxoekin egoteko. "Primeran pasatzen dugu hirurok elkarrekin, irrastian edo hondartzan edo mendian" dio Ane Monnak "Baina irrastian lagun berri bat egin dugu, Josu soinu teknikaria!! Eta oso barregarria da."

Betiko moduan gure itsasoko pertsonaia hauek lagunak egiteko prest daude eta esaten duten bezala edozein lekutan pozik eta primeran pasatzen dute haien laguntxoekin. Betidanik antzokietan, baina oraingoan irrastian ere aurkitu ahal ditugu.

Ea zenbat denbora daramaten irratsaioa egiten galdetu diegu eta Karramarroiren erantzuna hauxe izan da: "Egun bat, bi, zortzi, aste bat, lau, hemezortzi, hilabete bi, hogeita hamazortzi!!" "Zoratuta zaude, Karramarroi! Moztu dio Oskolak, " Ane monna Oskola eta Karramarroi irrastian gutxi gora behera urte bat daramagu Gaur ez dago eskolarik irratsaioa egiten! Ay ama, Karramarroi!"

Argi dago! Hirukote zoragarri hau energiaz beterik dago eta hori plazaratu nahi dute haien programa guztietan. Umeei asmakizunak helarazten dizkiete ea gai diren asmatzeko baina, nola ez! Haiek ere buruaru hamar mila buelta ematen diote asmatu ahal izateko. Eta ez hori bakarrik! Ipuiak entzuten dituzte eta gero ipuinetan agertzen diren gaiei buruz hitz egiten dute haien logikare-



kin, " zergatik ezkondu behar zen neska? Ezin zen bakarrik bizitzen geratuuu?" Eta horrela ipuin klasikoak eta ez klasikoak entzuten dira, umeen buruak lanean jarritz.


Musika ere oso garrantzitsua da saio honetan eta larunbat eta igandero martxa pilo bat egoten da "Gaur ez dago eskolarik" saioan, ah! Eta ez ahaztu! " gaur ez dago eskolarik, ez andereño, ez maisurik, gauur!! Olgau ein biuuu!

Irratia piztu larunbat eta igande guztietan goizeko hamarretan Bilbo hiria irratia 96.0 FMn

..eta gainera ondoko antzezlan hauek ere...



Maddi kostaldeko neska alai bat zen eta bere familiarekin oso pozik bizi zen, baina egun batean Miss Cauliflower erregina, Txerriface kapitainaren laguntzaz, gaiztakeriak egiten hasi zen. Honen aurrean Maddik erabaki sakon bat hartu behar izan zuen: Pirata bihurtzea!



Oskolak mezu bat jasotzen du Kubatik bere lehengusina Pepitak laguntza eskatzen dio bere herria birpizteko. Eta nola egingo dute? Liburu magiko batekin!



Vivaldi musikagilearen "Lau Urtaroak" Kontzertua, antzerki beltzaren magia eta musikaren bidez isladatzen da saio honetan.



Amonaren eskutik hainbat ipuin ezagutuko dugu jendearen parte hartzea bultzatuz eta ametsetan murgilduz.

"ZU ETA NI, SUDURLUZE BI" ANTZEZLAN BERRIAREN PRESTAKUNTZA

Urtero urtero Kukukuluxetan elkarteak ekoizpen artistiko bi edo hiru egiten ditu. Horiek burutzeko haurren imagerioan egon daitezkeen egoerak, pertsonaiak edota irudiak era eszenikoan aurkezten dizkiegu, bi helburu bete nahian: alde batetik, euskaraz egindako antzerki berri bat haien esku ipintzeko; eta bestetik, eduki hezitzaile ta pedagogiko batzuk helarazteko. Oraingo honetan euskal haurrentzat ezagunak ez diren pertsonaia batzuk aukeratu ditugu, baina gure ustez, barregarri eta erakargarri izan dakizkiekenak, alegia, Norvegiako Trolls. Pertsonaia hauek Europako Mitologian oso tradizio handiko izakiak dira, eta bertoko haur guztiek beraien abenturak ezagutzen dituzte.



Gure kasuan, gure asmoa ez da hainbeste, Iparraldeko Herrietako istorio jakin bat beraienganatzea, baizik eta, pertsonaia horiek aprobetxatuz, haurrengandik, gaur egun hurbilagoak diren egoerak islatzea. Dena den, zenbait estilo, batez ere, atrezzoari dagokionez, jatorrian diren bezala errespetatuko ditugu, eta neurri handi batean pertsonaien beraien izaera ere aintzat hartuko dugu.

Gidoia lantzerakoan ez dugu argudio bakar batean zentratu nahi izan; "skex" anitzez osaturiko gidoi arina egitea izan da gure xedea. Antzezlanaren ezaugarrien artean honako hauek aipatu beharko genituzke: hizkuntzaren kalitatea ona bada ere, haurren mailara egokituta dagoenez, egituraketa sinplea erabiltzen da. Bestetik, argudioa eta bertan agertzen diren agerraldietan ikusiko diren egoerak, munduko hainbat tokitako herri jakinduritik hartutako ereduak eta istoriotxo moldatuak dira, besteak beste, Txinatik, Ameriketatik, etab.

Jadanik, entseguak hasita daude eta dena ondo baldin badoa, uda aldean estreinaldia egiteko prest egonen gara, ondoren Euskal Herriko geografian zehar zirkuitatzeko. Beraz, ez dezagun aukera antzezlan barregarri eta dibertigarri hau ikusteko!

umegunea@gmail.com
Tel: 662 472 746



www.kurkuluxetan.org
Done Bikendi, 2-4.
48001 Bilbao (Bizkaia)